

DB

Behar Hitzza
Leioa



Behargintza Leioa

Lan egin nahi duzu Europar Batasuneko erakundeetan?

LHEBk nola funtzionatzen duen eta nolakoa den bere hautaketa prozesua azalduko dizugu. LHEB langileak hautatzeko Europar Bulegoa da; eman lezakeen irudiaren aurkakoa, estatuko funtzionarioa izateko oposaketa bat prestatzea askoz neketsuagoa da bai denboran, bai ahaleginean Europar Batasuneko funtzionario izateko oposaketak ekartzen duena baino

Arrazoa? LHEBk hautagaiak beren gaitasun eta trebetasunengatik baloratzen ditu, ez beren prestakuntza eta ezagutza zehatzengatik hemen egiten den bezala, non hautagaiak gai zerrenda luzea prestatu behar duen eta, kasurik onenean, batez beste urte bat edo bi jardunaldi osoz horretan ematea. Aitzitik, europar erakundeetako langilea izateko oposizioaren prestaketa beste jardun, ikasketa edo lan batzuekin batera egin daiteke, egunean ordu 1 edo 2 baino gehiago ez duelako eskatzen. Gainera, adinaren aldetik ere ez dago mugarik eskaintako lan-postuetara heltzeko.

Zein da Europar erakundeek bilatzen duten gaitasunen Profil Orokorra? Aurretik esan dugun moduan, europar erakundeek adimen eta motibazioa duten pertsonak bilatzen dute, beren arloan oso gaituak eta, gainera, hurrengo gaitasun orokorrak egiazta ditzaketenak:

GAITASUNA	DESKRIBAPENA
Arazoen azterketa eta ebazpena	<i>Gai konplexuetan funtsezko elementuak mugatu eta irtenbide praktiko eta sormenezkoak landu.</i>
Komunikazioa	Argi eta zehatz komunikatu, bai ahoz, bai idatziz.
Kalitatea eta Emaizak	Norbere gain hartu kalitate handiko lana produzitzeko ardura eta ekimena ezarritako prozedurei jarraituz.
Ikaskuntza eta garapena	Norberaren gaitasunak hobetu eta garatu, eta erakundea eta bere ingurunearen ezagutza ere bai.
Lehentasanak zehaztea eta antolakuntza	Eginkizun garrantzitsuenei lehentasuna eman, malgutasunez lan egin eta norberaren lan karga eraginkortasunez antolatu.
Resilientzia	Eraginkortasunari eutsi lan karga handi baten pean, antolakuntzaren inguruko frustrazioak era positiboan kudeatu eta lan ingurune aldaketetara egokitu.
Taldean lan egin	Talde lanean besteekin kolaboratu, hala nola beste zerbitzuekiko zeharkako eginkizunetan, eta pertsonen arteko desberdintasunak errespetatu.
Lidergoa	Pertsonak kudeatu, garatu eta motibatu ezarritako helburuak lortzeko (<i>bakarrik administratzaile postuetarako</i>)

Oposaketaren zatiei buruz eta Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean jasotako hautaketa prozesuaren arautegi guztiari buruz gehiago jakiteko, gure webgunean eskura duzun hurrengo esteka begiratu: <http://bit.ly/1K8g06g>

Behargintza Leioa Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroa

Mendibil kalea, 3 . 48940 - Leioa
Tfnoa.: 94 400 41 95 | Faxe: 94 402 25 41
www.behargintzaleioa.net
behargintza@leioa.net

 @LeioaBG  Leioako Behargintza

DEPARTAMENTOS:

Orientazioa

behargintza.orientazioa@leioa.net

Prestakuntza

behargintza.enplegua@leioa.net

Enpresa

behargintza.enpresa@leioa.net

Ekintzailtza

behargintza.ekintzaile@leioa.net

Ba al dago zure eskura eduki nahiko zenukeen informazioaren bat, baina ez dakizu zer eta nola egin?

Jarraian aurkezten dizugun programa galdera horri erantzuten saiatuko da.

Iaz udaleko enpresei zuzendutako Merkataritza Estrategiako ikastaro bat egin bagenuen ere, aurten jarraipena eman nahiko genioke sarean dagoen informazio-jarioa neurtu eta kontrolatzeko balio dezaketen baliabide teknologikoak ikasiz.

Horretarako, lau taldekako jardunaldi izango duen ikastaroa antolatu dugu, non zer begiratu daitekeen, horretarako zein baliabide dagoen eta nola baliatu daitekeen lortutako informazioa aztertuko dugun. Taldekako jardunaldiek dagozkien banakako tutoretzak izango dituzte ikasitako kontzeptuak kasu patikular bakoitzean aplikatzeko.

Sarean, hala gune geografiko zehatz batean alokatzeko dauden lokalen kokapena, nola gure lehiakideen jarduera ikus daitezke. Beraz, ez ezazu pentsa zure beharrak garrantzi gutxikoak direla zure enpresan begiratze-teknikak aplikatzeko

Gure web gunean begira dezakezu ikastaroaren programa eta planifikazioa. Gogorarazten dizuegu ere bai, Behargintzaren beste programa batzuk bezala, doakoa dela. Izena emateko edo edozein zalantza argitzeko, jarri gurekin harremanetan 94.400.41.95 telefonoan edo behargintza.enpresa@leioa.net posta elektronikoan.

Leioa Blog 1. lehiaketa

Joan diren ostiral eta larunbatean (urriaren 9a eta 10a) "Leioa Blog Lehiaketa" txapelketa egin genuen, non hainbat gaitan jarduten duten blogariek parte hartu zuten. Lehiaketaren helburua, hala udalerrriaren toki erakargarriak nola herria osatu eta bizia ematen dioten dendeak ekartzen dituzten balioak agertzea zen.

Jardunaldira 20 parte-hartzaile inguru joan ziren eta lehiaketari buruzko itxaropenak soberan bete zituzten. Hasteko, Mendibile Jauregiaren historian sakontzeko ibilbidea, ondoren parte hartzen zuten saltokiak eta Leioako beste leku interesgarri batzuk ikusteko ibilbide gidatua, eta amaitzeko, larunbatean Txakolibierfesten inaugurazioarekin, hau ere gure Mendibile Jauregi paregabea.

Gaurko egunean, blogarrien argitalpen guztiak argitaratuta daude <http://leioablog.com/en>. Gure "eskribau" bereziek emandako idazki piloaren kalitateak zaildu badu ere, azkenean epaimahaiak 3.000€-ko dirutan emandako sariaren irabazlea eta hurrengo bi urteetan Community Manager bezala arituko dena izatea...

ANGELA TROVATO, CURVY WORLD! bere blogatik. Zorionak Angela!

Angela, ziur gaude zure 50 idazkiek gure udalerriri buruz, hala nola gure dendei eta ostalaritzari buruzkoek Leioa Blog egunean erakutsi zenigun adina bizitasun izango dutela. ZORIONAK!

Gainerako parte-hartzaileei zuen ardura eta berotasuna eskertzen dizuegu, eta batez ere, zuen idazkien kalitatea. Leioa ikusgai egiten lagundu diguzue. Lehiaketaren antolakuntzatik bene-benetan eskertu nahi dizuegu hau.

Saltokien aldetik jaso ditugun onarpena eta zorionak aintzat hartuta, ekitaldiaren jarraipena planteatzen dugu. Beraz, datorren urtean, gehiago eta hobeto. Aldaketa txiki batzuekin, zuen partaidetza izaten espero dugu.

Eskerrik asko, bai dendei, bai ostalaritzari, bai blogari parte-hartzaileei.



Business Angels Crecer+ Foroa



Crecer+ plataformak Inbertsio Foroaren aurtengo ekitaldia ospatu du. [GCON4](#), [Microliquid](#), [Take a Chef](#) eta [Rock the Sport](#) han sido las empresas que han presentado su proyecto ante inversores privados, business angels y family offices.

enpresek beren proiektua aurkeztu dute inbertitzaile pribatu, business angel eta family office-n aurrean.

Aurtengoa inbertsio foro honen 14. edizioa izan da, zeina dagoeneko erreferentziazko ekitaldia baita hazkunde potentzial handia duten eta finantza arloko laguntza behar duten startup-ak babesteko.

Aurkeztu dituzten proiektuak Euskadi, Madril eta Nafarroakoak izan dira, eta helburutzat dute finantzaketa bilatzea Estatu mailan eta nazioartean hazteko. Hilabete hauetan zehar, beren aurkezpena egokitu dute Crecer+ plataformaren bitartez, Crecer+ sareko inbertitzaileen (60tik gora kide ditu) arreta eta interesa erakarri nahi dutelako.

Crecer+ Business Angels kluba Crecer+ plataformaren ekimena da, inbertsiogile pribatuen eta hazteko potentzial handiko proiektu berritzaileen ekintzaileen topagune izatea helburu duena.

Crecer+ Business Angels-ek Euskal Autonomia Erkidegoan ekintzailletza ekosistema garatzen lagundu nahi du, gure herrialdea proiektu berritzaileak dituzten ekintzaileentzat toki erakargarri izan dadin eta horrela, bertako ezaugarri den kultura ekintzaileak iraun dezan.

Informazio gehiago: <http://orquestra.deusto.es/bacrecermas/eu/>

Prestakuntza

Beharrezkoa al da enplegua bilatzeko lanerako prestakuntza?

Behargintza-Leioak hilero ematen du “**Enplegua bilatzeko lan tresnak**” hizpide dituen ikastaro bat, eta horrela, laneratzeko ibilbidean daudenei ezagutzak kontrastatu edo berriak ikasteko aukera ematen diegu, konfiantza har dezaten enplegua bilatzeko lanean.

10 orduko ikastaro horretan, eguneko bi orduko saiotan banatuta, astean zehar, jarraian doazen edukiak jorratzen dira:



CONTENIDOS Y LINKS DE INTERES

Nire CV bidaltzeko enpresak aurkitu, edo sektorekako edo eskualdekako enpresen zerrenda prestatu	http://bit.ly/1JRGHfy
Eskaintza bakoitzaren neurrira prestatu curriculuma	http://bit.ly/1GvLV08
Gaitasunen araberako CV prestatu, lan esperientzia handia dutenentzat	http://bit.ly/1L5McsW
Gaitasunen araberako CV prestatu, lan esperientzia txikia dutenentzat	http://yourock.jobs/es
Oinarrizko aholku batzuk elkarrizketarako (lehenago, elkarrizketan zehar, eta ondoren)	http://bit.ly/1KZhiEC
Lan elkarrizketa bateko ohiko 50 galderari erantzun	http://bit.ly/1nxUOME

Gainera, taldeka lan egiten dugu **ez hitzeko komunikazioaren** eta gorputz hizkuntzaren garrantzia, ikuspegi dinamikoa eta praktikoarekin, esaten duguna eta nola esaten dugun kontrajarriak izan ez daitezen; **galdera zailak berplanteatzea** eta **hautaketa elkarrizketak** prestatzea seguruago aurre egiteko, berez, estresagarria den egoera bati.

TLN-Mobility

Nazioarteko zenbait aditu Gasteizen bilduko dira, gazteen lan-mugikortasunari buruz eztabaidatzeko

TLN-Mobility programan parte hartzen duten erakundeak lehen aldiz bilduko dira Gasteizen. TLN-Mobility delakoa Europako programa bat da, eta gazteen nazioarteko mugikortasuna proposatzen du desabantailan dauden gazteak laneratzeko.

Mugikortasun programa horiek oso eragin onuragarriak dakarzkiete parte hartzen duten pertsoneri: programa bukatzean lortutako emaitzak prestakuntza-programetan sartzetik, laneratzera doaz. Aldi berean, programoi esker, autoestimua eta ahalduntze maila handiagoa lortzen dute gazteek.

Bileron helburua hau da: programan parte hartzen duten erakundeek prestatutako nazioarteko mugikortasun-jarduera guztiak koordinatzea, zertarako eta kalitate maila egokiak bermatzeko eta esperientziak trukatzeko.

Programa horien esparruan (IdA programa), Lanbidek desabantaila egoeran dauden bi gazte talde bidali zituen halako praktikak egiteko, Alemaniako Karlsruhe eta Augsburg udalerrietara, hain zuzen. Euskadira itzuli, eta haien garapen pertsonal eta profesionalean izandako eragin positiboak ebaluatzean, 4,2 puntu eman zizkieten gazteek programari (5etik).

<http://www.lanbide.euskadi.eus/albistea/2015/nazioarteko-zenbait-aditu-gasteizen-bilduko-dira-gazteen-lan-mugikortasunari-buruz-eztabaidatzeko/y94-noticia/eu/>



Agenda

Azaroa:

Merkataritza elektronikoa - Onlineko denda

2015/11/13: Bilbao (Bizkaia)

Prestakuntza: zaintza teknologikoa eta adimen lehiakorra

2015/11/17: Leioako Behargintza (Bizkaia)



Dirulaguntzak

Bizkaiko Foru Aldundiaren 158/2015 FORU DEKRETUA, urriaren 6koa, zeinaren bitartez aldatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren 25/2015 Foru Dekretua, martxoaren 3koa, EETIFIL 2015 inbertsio aurreratuari laguntzeko Planaren oinarri arautzaileak eta lehen deialdia onesten dituena. [Buletinerako Sarbidea](#)

Bizkaiko Foru Aldundiaren 157/2015 Foru Dekretua, urriaren 6koa. Honen bidez, Elkarlanean, Lankidetzan berrikuntza bultzatzeko Programa 2015 arautzen duten oinarriak eta deialdia onartzen dira (Oker zuzenketa). [Buletinerako Sarbidea](#)

Bizkaiko Foru Aldundiaren 152/2015eko irailaren 29ko FORU DEKRETUA, abenduaren 9koa, 163/2014 foru dekretua aldatzen duena. Foru dekretu horren bidez, diru-laguntza batzuetarako oinarri arautzaileak onartzen dira langabezian eta bazterkeria-arriskuan dauen pertsonen artean autoenplegua eta enpresak sortzea sustatzeko. [Buletinerako Sarbidea](#)

AGINDUA, 2015eko irailaren 16koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Emaitek Plus laguntzen programa arautzen duena. [Buletinerako Sarbidea](#)

Elkarrizketa



Behargintza Leioare enpresa mintegian kokatutako enpresa berria zarete. Zein da udal hiri-merkataritzari buruz egiten duzuen balorazioa?

Gure jardunaren alderdia, komunikazioa eta marketina balioetsiz, uste dugu bai Leioan, Bai Euskadin orokorrean, merkataritzak arazo handiak dituela bezeroak erakarri eta haien leialtasuna lortzeko.

Internetek erabat aldatu du gure erosteko era. Lehen, zerbait behar genuenean, dendara joan, zer zegoen begiratu, alderatu eta hantxe bertan erabakitzen genuen erosi edo ez. Orain, minutu batean, klik batean, prezioak alderatzen ditugu, produktu baten ezaugarri guztiak aztertzen ditugu eta miloika denda daukagu erosteko. Eta krisialdi ekonomikoak prezio txikiena duen produktua aukera dezagun bultzatu du.

Merkatariek ez dakite nola kudeatu interneten bidez bezero berrien bereganatzea edo merkatari handiekin lehiatzeko zein estrategia erabili bezeroen leialtasuna lortzeko. Nahiko

galduta daude. Baina, normala da gehienek ez baitaukate horretarako ezagutzarik.

Saltokiak konturatzen hasi dira teknologia berrietara eta beren balizko bezeroen ohituretara moldatu behar direla. Baina, oraindik oso poliki doan aldaketa eta bilakaera da..

Nola salduko zenizkiote zuen e-commerce zerbitzuak herrian 40 urte daraman moda denda bati, erosketa ohituren aldaketak egunez egun ikusten dituen, baina oraindik mundu honetara salto egin ez duena?

Internet oso tresna garrantzitsua da bezero berriak saltokira erakartzeko. Eta saltokiaren adina edozein delarik, gero eta errentagarriagoa izateko bezero berriak beharko ditu, eta jadanik dituenak, gero eta gehiago eros dezatela.

Gaur egun ditugun tresnak erabiliz eta on-line ingurunea nola funtzionatzen duen ulertuz, bezero gehiago eta haien leialtasuna lor daiteke.



Elkarrizketa

Baina honek funtziona dezan ezagutza eta eskarmentu handia behar dira. Internet eta sare sozialak beteegiak daude marka guztietako miloika mezuekin, eta nabarmentzeko oso ondo jakin behar da zein tekletan ikutu behar den.

Urteetako lanak eta eskarmentuak nola egin erakutsi digute, nahiz eta egunez egun ikasten jarraitzen dugun.

On-line denda bat jartzeko aukera ere badago. Kontua da produktuak erabat desberdina den inguru batean saltzea. Aukerak asko dira, baina ez da erraza eta zerk funtzionatzen duen eta zerk ez oso ondo ezagutzen duten profesional onen laguntza behar da.

Izatez, on-line denda gehienak ez dira errentagarriak eta itxi egin behar dira. Sarritan hau gertatzen da, ez dutelako inoiz negozio bat kudeatu eta e-commercen ere eskarmenturik ez daukatelako.

Saltokien abantaila kasu honetan beren negozioa nola kudeatu badakitela da. Interneten bidez saltzeko parte falta zaie.

Zein aholku emango zenukete aurreko galderako denda hori bere presentzia sarean hobetzen hasteko?

Guk aholkatzen duguna plataforma propioa, hau da, webgune propioa edukitzea da. Facebook-en orrialde bat izatea zure estrategiaren osagarria da eta, izatez, Facebook-ek edozein mementotan itxi ahal dizu. Baina zure plataforman eraikitzen dituzun bisitak ez dira gauetik egunera desagertuko, zeurea delako.

Funtsezkoa da dendari buruzko informazioa ematen duen webgune bat, non dagoen kokatuta, ordutegiak, zer saltzen duen, zein marka dituen eta harremanetarako bideak azaltzen dituena.

Balio al dute e-commerce teknika berberak moda denda baterako, ostalari batentzat, ileapaindegi baterako eta jostailu-denda baterako? Zein aholku emango zenukete?

Ez. sektore bakoitzak publiko desberdina dauka. Eta publiko hori leku desberdinetan dago (interneten), ohitura desberdinak dituzte, eta erostea erabakitzeke orduan gauza desberdinek eragiten diete.

Adibidez, modan, jende askori zer janzten duten blogariek edo famatuek eragiten dio. Blogari batek zure produktua erakusten badu, salmentak eta marka nabarmentzea ekarriko dizu. Beste sektore batzuetan, eragin handiagoa du zure marka Googlaren orrialde batean agertzeak, horregatik, gehiago inbertitu beharko duzu iragarkietan.

Kontua da zure balizko bezeroa ezagutzea, jakitea non dagoen eta bilatzen duen hori ematea zuri erostea erabaki dezan.

Hurbileko harremana barik, zeintzuk dira e-commerceren abantailak prezioetan lehiatzea oso zaila zaion hiri-saltoki batentzat?

Badaude lehiatzeko beste modu batzuk. Ez da erraza, baina ingurune berri honetan eta kontsumitzaile berri batekin, negozio ereduak birsortu behar dira. Askotariko produktuak oso aukeratze sakonarekin, arreta bikaina bezeroari (interneten ere eduki daiteke harremana bezeroarekin) edo produktuak erabiltzen irakasteko tutorialak edo artikuluak dituen webgune bat, desberdintasuna nabarmendu dezake.

Preziorik txikienaren alde agertzen jarraitzen duen jendea egongo da, baina beste asko daude dendak ematen dien konfiantza gehiago balioetsiko dutenak, edo dendak informazio gehiago ematen diela, adibidez.

Hala ere, honekin ez dut esan nahi saltoki guztiak animatu behar direnik. Nahiz eta diru gutxiarekin on-line denda bat eduki dezakezun, gero marketinean inbertitu behar duzu bisitak lortzeko, bisitarik gabe ezinezkoa baita saltzea. Honengatik, norbaitek honi ekitea pentsatzen badu, kontuan har dezala horren aldeko apostua egin eta inbertitu beharko duela negozioak aurrera egiteko.

